

# BEHARGINTZA

FORMAKUNTZA  
ESKAINNTZA

# LEIOA



Leioa  
BEHARGINTZA



Proiektuak, gaitzak, irratziak eta  
zerbitzuak erabilgarriak diren  
akuntzaren bitartez enplegu  
inbiziaren enpresa gaitzak



ERAKUNDAKONAKO  
KONTRAKTUAZKO ENPLEGU  
ERREMEDIUAK (ERRE) ENPLEGU  
ERREMEDIUAK  
ERREMEDIUAK  
ERREMEDIUAK

2023ko

IKASTAROAK



URTARRILA-EKAINA

# LEIOA BEHARGINTZA UDALA



**BEHARGINTZA LEIOA**  
Mendibil 3

📞 94 400 41 95 - 94 400 80 51  
✉ behargintza@leioa.eus  
🌐 [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)

Behargintza Leioa Zentroa Leioako udalerriko turismoaren eta ekonomia-aren garapenaren eta enpleguaren sustapenaren aldeko apustu sendoa da, eta, beraz, enpresa-sareari ez ezik, Leioan bizi diren edo jarduera ekonomikoa hemen finkatu nahi duten pertsoneri ere erreparatzen diegu.

Beraz, hurbiltasuneko garapen ekonomikoko egitura bat gara, non udalerriko langabeen prestakuntza

edo kualifikazio profesionala hobetzeko ahaleginak bideratzeaz gain, ekintzaitza sustatzea, tokiko merkataritzari eta udalerriko enpresei arreta ematea ere bideratzen diren, edozein taimainatakoak direla ere.

Leioako Udalak, Behargintzaren bitartez, gainerako eragileekin batera, gure udalerraren garapen eta ongizaterako interes komuna modu jasangarri eta ekitatiboan bultzatzen lan egiten dugu.

## GURE ESTRATEGIAK

- Herri agente guztien ahaleginak bateratu.
- Lana sortu.
- Enpresa eta ekonomi aukera berriak bilatu.
- Herri ekonomiaren sektore desberdinak bultzatu.
- Tokiko agenteak garapenean informazio teknologiek duten garrantzia aintzat eduki.
- Tokiko agenteak suspertu, beraien esku makina bat tresna jarriz.

1 BILTEGIA ETA LOGISTIKA IKASTAROA, TRANSPAleta ETA ESKORGA ERABILITA				
<p>Logistikaren eremua –zuzena zein alderantzizkoa– izugarri aldatu da, ez bakarrik banaketa-zentro izugarriak ezarri direlako, baita enpresa ertain eta handietan gune logistiko eta sail berriak agertu direlako ere. Ikastaro honek kate logistikoaren oinarritzko ezagutzak ahalbidetuko dizkizu: biltegi baten ohiko teknikak eta makinak eta garraioari lotutako agiriak (emate-agiriak eta eskaeren fakturazioa) izango dituzu aztergai, baita nazioarteko merkataritzaren arau nagusiak (INCOTERM) ere. Azkenik, lan-arriskuen eta prebentzioaren oinarritzko ezagutzak eskuratuko dituzu, lan-segurtasuna bermatzeko</p>				
<b>HASIERA-DATA</b> 2023/02/03	<b>AMAIERA-DATA</b> 2023/02/27	<b>ORDUTEGIA</b> 09:30-14:30	<b>ORDU KOPURUA</b> 100	<b>PLAZAK</b> 15
<b>SARTZEKO BALDINTZAK</b>			<b>IKASTAROAREN TOKIA</b>	
<p>Enplegu-bilaketarako tresna berriak bereganatu behar dituzten Leioako biztanleei zuzenduta dago. Logistikaren eta biltegiaren alorretan esperientzia izatea ez da derrigorrezkoa</p>			Behargintza Leioa	

ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA				
<p>Norbere kontura lan egin nahi duten eta jarduerari hobeto ekiteko gaitasunak landu nahi dituzten pertsoneri zuzenduta dago. Prestakuntza honetan, negozio-idea hobeto aztertu, estrategia on bat lortzeko baliabide komertzialak optimizatu eta zure merkataritza-proiektua eta bideragarritasun ekonomikoa baloratuko dituzu</p>				
<b>HASIERA-DATA</b> 2023/02/13	<b>AMAIERA-DATA</b> 2023/02/24	<b>ORDUTEGIA</b> 09:30-13:30	<b>ORDU KOPURUA</b> 35	<b>PLAZAK</b> 20
<b>SARTZEKO BALDINTZAK</b>			<b>IKASTAROAREN TOKIA</b>	
<p>Ikastaroan izena eman nahi duenak ekintzaitza- teknikariarekin bildu behar du, negozio-idea zenbateraino garatu den zehaztu eta zalantza guztiak argitzeko</p>			Leioako enpresa haztegia	

2	ENPRESAREN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA					
<p>Behar sozioekonomikoetara egokitzeko, enpresek denbora eta baliabideak ondo kudeatu eta optimizatu behar dituzte, eta, horretarako, balio anitzeko lantalde bat behar dute. Ikastaro honetan, informatika- eta bulegotika-tresnak erabiltzen ikasiko duzu, aurrekontuekin, kontabilitatearekin eta fakturazioarekin lotutako oinarrizko zereginak burutzeko. Horrez gain, webean eta sare sozialetan bezeroekin eta hornitzaileekin harremanak ezartzeko teknologia digitalak erabiltzen ikasiko duzu</p>						
<b>HASIERA-DATA</b> 2023/03/01		<b>AMAIERA-DATA</b> 2023/03/31		<b>ORDUTEGIA</b> 09:30-14:30	<b>ORDU KOPURUA</b> 100	<b>PLAZAK</b> 12
<b>SARTZEKO BALDINTZAK</b>				<b>IKASTAROAREN TOKIA</b>		
<p>Administrazioaren alorrean ezagutza edota esperientzia duten eta horiek areagotu edo beste lanbide-sektoreetara bideratu nahi dituzten pertsonen zuzenduta dago; baita fakturazioaren eta kontabilitatearen alorretan administrazio-prestakuntzarik ez duten pertsonen ere, informatikako ezagutzak badituzte betiere</p>				Behargintza Leioa		

4	MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO ERIZAINTZAKO ZAINKETAK					
<p>Mendekotasuna eta/edo dementsia duten pertsonen arreta eta zainketa egokiak emateko, gero eta prestakuntza tekniko eta sanitario gehiago behar dira. Ikastaro honetan, bizi-konstanteak eta laginak hartzen, azaleko lesioak identifikatzen eta tratatzen (presioagatik ateratako ultzerak eta zauriak), botikak eta jana ematen, ostomiak eta trakeotomiak zaintzen eta lehen sorospenak ematen ikasiko duzu. Horrez gain, konpententzia kualifikatua lortuko duzu dementsia duten gaixoeekin lan egiteko, sintomak identifikatzeko, osasun-egoeraren aldaketek ohartzeko eta arazoak prebenitzeko</p>						
<b>HASIERA-DATA</b> 2023/05/15		<b>AMAIERA-DATA</b> 2023/06/09		<b>ORDUTEGIA</b> 09:30-14:30	<b>ORDU KOPURUA</b> 80	<b>PLAZAK</b> 16
<b>SARTZEKO BALDINTZAK</b>				<b>IKASTAROAREN TOKIA</b>		
<p>Mendekotasuna duten pertsonen zainketaren eremuan lan egiteko ezagutza handiagoak behar dituen udalerriko edonork eman dezake izena</p>				Behargintza Leioa		

3	OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA					
<p>Parte-hartzaileek etxebizitza baten instalazio elektrikorako gaitasun teknikoak eta oinarrizko ezagutzak eskuratuko dituzte. Ezagutza horri esker, errazago eskuratuko dituzte 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak elektrizitatearen eta elektronikaren lanbide-arloan. 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriaren aurreko prestakuntza: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dituen prestakuntza-ekintzen katalogoari dagokion etxebizitza baten instalazio elektrikoa prestakuntza-programari dagozkion edukiak emango dira</p>						
<b>HASIERA-DATA</b> 2023/05/10		<b>AMAIERA-DATA</b> 2023/05/31		<b>ORDUTEGIA</b> 09:30-14:30	<b>KOPURUA</b> 80	<b>PLAZAK</b> 15
<b>SARTZEKO BALDINTZAK</b>				<b>IKASTAROAREN TOKIA</b>		
<p>Enplegu-bilaketarako tresna berriak bereganatu behar dituzten Leioako biztanleei zuzenduta dago. Eraikuntzaren alorrean esperientzia izatea ez da derrigorrezkoa</p>				Behargintzatik kanpoko		

ENPRESA SORTZEA ETA KUDEATZEA						
<p>Norbere kontura lan egin nahi duten eta jarduerari hobeto ekiteko gaitasunak landu nahi dituzten pertsonen zuzenduta dago. Prestakuntza honetan, negozio-idea hobeto aztertu, estrategia on bat lortzeko baliabide komertzialak optimizatu eta zure merkataritza-proiektua eta bideragarritasun ekonomikoa baloratuko dituzu</p>						
<b>HASIERA-DATA</b> 2023/06/12		<b>AMAIERA-DATA</b> 2023/06/20		<b>ORDUTEGIA</b> 09:30-13:30	<b>ORDU KOPURUA</b> 35	<b>PLAZAK</b> 20
<b>SARTZEKO BALDINTZAK</b>				<b>IKASTAROAREN TOKIA</b>		
<p>Ikastaroan izena eman nahi duenak ekintzailtza- teknikiarekin bildu behar du, negozio-idea zenbateraino garatu den zehaztu eta zalantza guztiak argitzeko</p>				Enpresa haztegia		

# GAZTE DI UK BEKAK 2022



Leioako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Uribe Kostako udalerriek, 2022-2023 aldirako, gazteriaren arloko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute.

Eskualdeko gazteen besteren konturako enplegua sustatze

aldera, Leioako Udalak **LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK EGITEKO BEKA PROGRAMA** garatu eta bultzatuko du, titulazioa duten baina, lan esperientziarik ez duten gazteei gertuko enpresetan praktika ordainduak egiteko aukera luzatuz, horien enplegagarritasuna sendotuz.

## GAZTEAK

18 eta 29 urte bitarteko, Leioa, Berango, Sopela, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Urduliz-en erroldatutako titulaziodun gazteei zuzenduriko beka. Bekadunek, praktikaldiak dirauen 4 hilabetetan zehar, hileroko 750 eurotako ordainsaria jasoko dute.

## ENPRESAK

Beka programan parte hartzeko enpresak, legez eraturik egon eta egoitza soziala edo lantokia Bizkaian izan behar dute. Enpresak ez du beregain hartzen inongo gasturik eta Beken onuradunen hautaketa prozesua Lanbiderekin batera burutuko da.

## IZEN EMATEAK

Parte hartzea bideratzeko epea (gazteak, enpresak) 2023ko otsailaren 28ra artekoa izango da. Eskerak, nagusiki Leioako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez bideratuko dira: [udaletxean.leioa.eus](http://udaletxean.leioa.eus)

### + INFO:

ATERPE LEIOA GAZTEGUNEAN  
Tel: 94 405 58 50  
✉ [gazte@leioa.eus](mailto:gazte@leioa.eus)

BEHARGINTZA LEIOA  
Tel: 94 400 41 95  
✉ [behargintza@leioa.eus](mailto:behargintza@leioa.eus)  
✉ [gaztedibekak@leioa.eus](mailto:gaztedibekak@leioa.eus)

Hitzarmenean parte hartzen duten udalerrietako Gazteria zerbitzuetan.

# BEHARGINTZA FORMAKUNTZA ESKAITZA **LEIOA**



## 2023ko IKASTAROAK URTARRILA-EKAINA



## IZEN-EMATE FITXA

# IZEN-EMATE FITXA

Izen-ematea **BEHARGINZA LEIOAN** edo [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net) web-orrialdean.  
Izen-emateak 2023ko urtarrilaren 16tik aurrera egingo dira.

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

NAN: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

HELBIDE OSOA: \_\_\_\_\_

UDALERRIA: \_\_\_\_\_

HELBIDE ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_

EGINDAKO IKASKETAK: \_\_\_\_\_

HIZKUNTZA LEHENETSIA:  EUSKARA  GAZTELANIA

BEHARGINTZA LEIOAN APUNTATUTA ZAUDE?  BAI  EZ

## IKASTAROAK

**1** BILTEGIA ETA LOGISTIKA

**2** ENPRESAREN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA

**3** OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA

**4** MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEI ARRETA EMATEKO ERIZAINZAKO ZAINKETAK